



2019KO MAIATZAREN 20AN BATZARRAK EGIN ZUEN BILKURAKO AKTA.-

Tolosako udaletxearen Pleno aretoan egin du bilera 2019ko maiatzaren 20an, 18:30tan, TOLOSALDEKO MANKOMUNITATEAREN Batzarrak, JOSU AMILIBIA ALSUA Lehendakaria mahaiburu delarik, eta horretara ondoren zerrendatuko diren udaletako alkate eta zinegotziak bertaratu dira:

BERTARATUAK:

BATZARRAREN LEHENDAKARIA (%0,77): Josu Amilibia Alsua
ALEGIAKO UDALA (%2,85): Unai Iraola Aguirrezabala
ALKIZAKO UDALA (%0,61): Jon Umerez Urrezola
ALTZOKO UDALA (%0,65): Josu Astrain Azkona
AMEZKETAKO UDALA (%1,58): Iñaki Amundarain Tolosa
ANDOAINGO UDALA (%23,92): Ana Carrere Zabala
BERASTEGIKO UDALA (%1,72): Amaia Azkue Eizagirre
GAZTELUKO UDALA (%0,28): Edurne Garcia Azurmendi
IBARRAKO UDALA (%6,95): Mikel Agirrezabala Ezkurdia
IKAZTEGIETAKO UDALA (%0,76): Bakarne Otegi Jauregi
IRURAKO UDALA (%2,73%): Jose Ramon Epelde Irizar
LARRAULGO UDALA (%0,42): Aritz Sarria Sarasketa
LIZARTZAKO UDALA (%1,05): Leyre Gordo Castro
TOLOSAKO UDALA (%30,91): Patxi Amantegi Zubiria
ZIZURKILGO UDALA (%4,89): Aitor Sarasua Arruti

ETORRI EZ DIRENAK:

ABALTZISKETAKO UDALA (%0,54): Kepa Gorostidi Garmendia
ALBIZTURKO UDALA (%0,53): M^a Isabel Machinandiarena Arrospide
BALIARRAINGO UDALA (%0,21): Olatz Iriarte
BELAUNTZAKO UDALA (%0,42): Silvia Moneo Cid
ELDUAINGO UDALA (%0,39): Miren Amaia Askasibar Agirre
HERNIALDEKO UDALA (%0,57): Miren Karnele Pellejero Galarraga
LEABURU-TXARAMAKO UDALA (%0,61): Itziar Zubelzu Urbietza
ORENDAINGO UDALA (0,32%): Gorka Egia Arregi

GAI ZERRENDA

Hona hemen bilerari dagokion Gai-zerrenda:

- 1. 2019ko martxoaren 20ko Batzarraren Akta onartzea.**
- 2. Lehendakariaren Ebazpenen berri ematea: LE20190320.007tik LE20190509.013ra.**
- 3. 2018ko Kontu Orokorren onarpena.**
- 4. Inbentarioaren eguneraketa.**
- 5. 2019ko Fidantza kontrolerako planaren berri ematea.**

6. Tolosaldeko Mankomunitatea eta Spora Ingurumen Zerbitzuak enpresaren artean izenpetutako kontratuaren aldaketa proposamena, ingurumen hezitzailearen zerbitzuaren ingurukoa.
7. Tolosaldeko Mankomunitateko estatutuen proiektu berriari jarritako alegazioen azterketa eta onarpena, hala badagokio.
8. Galde-erreguak.

Mankomunitatearen Idazkari den Leire Arteaga Zumetak eman dio fede aktari, Gemma Eceiza Mankomunitateko teknikariaren aurrean.

Lehendakariak Anoeta, Asteasu, Berrobi, Oresa eta Villabonako ordezkariak gutunak aurkeztu ondoren eta Idazkariak estatutuetako 18.2 artikuluan diona egiaztatu ondoren, aipatutako udalerri hauen ordezkariak jarraian agertzen den moduan geratzen da:

ANOETAKO UDALA: Ordezkaria, Josu Amilibia Alsua
ASTEASUKO UDALA: Ordezkaria, Josu Amilibia Alsua
BERROBIKO UDALA: Ordezkaria, Josu Amilibia Alsua
OREXAKO UDALA: Ordezkaria, Josu Amilibia Alsua
VILLABONAKO UDALA: Ordezkaria, Patxi Amantegi Zubiria

Estatutuen 45. artikuluan xedatzen den bilerakideen kopurua bete denez lehenengo deialdian, Batzarra eratutzat jo da. Horrekin, gai-zerrendako gaiak aztertzeraz jo dute bilerakideek.

1. 2019ko martxoaren 25eko Batzarraren Akta onartzea.

Izenburuan erlazionatutako akta ahobatez onartu da.

2. Lehendakariaren Ebazpenen berri ematea: LE20190320.007tik LE20190509.013ra.

Mankomunitate honi subsidiarioki aplikagarri zaion apirilaren 2ko 7/85 Legearen 22.2 a) artikuluan adierazitako ahalmena gauzatzearren, eta Tokiko Erakundearen Antolakuntza, Funtzionamendu eta Erregimen Juridikoari buruzko Araudia onartzen duen azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretuaren 42. artikuluan adierazitakoari jarraiki, Lehendakariak Batzarrari jakinarazi dizkio azken bileraz geroztik hartutako erabakiak.

LE20190320.007
LE20190320.008
LE20190327.009
LE20190425.010
LE20190429.011
LE20190506.012
LE20190509.013

Batzarra jakinaren gainean geratu da.

7. Tolosaldeko Mankomunitateko estatutuen proiektu berriari jarritako alegazioen azterketa eta onarpena, hala badagokio.

Tolosako ordezkariak eskatu du gai-zerrendako puntu honekin hasia, laster beste bilera bat daukalako. Lehendakariak galdetu die gainerako batzarkideei ea eragozpenik ikusten dioten eskaera honi.

Andoingo ordezkariak hitza hartu du azpimarratzeko momentu honetan bakarrik daukatela garrantzia mankomunitateko gaiak, ez kanpoko beste edozein gai edo bilera. Tolosakoak erantzun dio adibide bat jarriaz, Tolosaldea Garatzen-ek jarraitzen duen prozedura bilere buruz: astero-astero ospatzen dituztela eta gai guztiak aldeztu aurretik loturik eta adosturik erabaten dituztela.

Ikusirik inork ez duela oztoporik jarri gai-zerrendako hurrenkera aldatzeko, Lehendakariak estatutuen aldaketaren prozedura laburbildu du, orain arte eman diren pausoak azalduz: pasa den martxoaren 25eko Batzarra onartu zuen Mankomunitateko estatutuen bigarren aldaketaren proiektua, eta jendaurrean egon ondoren, Tolosako Udalak alegazioak aurkeztu ditu, bere kontuhartzaileak eginiko txosten batean oinarrituak. Ondoren, Lehendakaria Tolosako ordezkariekin bildu zen, gaia eztabaidatzeko, baina ez ziren ados jarri udal guztien adostasuneko puntuan, Tolosako udalak eskatu zuelako, bai estatutuen objektua eta baita ere udalen ekarpenak aldatzeko garaian, Mankomunitateko Batzarra eta udal guztien adostasuna beharrezkoa izatea.

Lehendakaria ez dago ados puntu horretan, 28 herrien adostasuna ez delako erraza lortzea, eta ondorioz mankomunitatearen funtzionamenduan eragin negatiboa izan dezakeelako. Adostasun osoaren ordez, %80 inguruko adostasuna lortzea da bere helburua. Horregatik bere proposamena da Tolosako Udalak aurkeztutako alegazio guztiak onartzea, 61.5 puntuari dagokiona ezik, non udal guztien adostasuna eskatzen den.

Tolosako ordezkariak irakurri du Batzar hau ospatu den egunean Mankomunitateko erregistroan aurkeztu duen idatzia, non, besteak beste, eskatzen duen puntu hau ez bozkatzea, ez delako inongo proposamenik banatu Batzar honen deialdiarekin batera. Aldi berean, eskatzen du ere guztien artean testu berri bat adostea. Idazkariak erantzun dio aurreko Batzarrean onartu zela testua, eta momentu honetan dagokiona dela bere udalak aurreratu behar duen alegazioak onartzea ala ez.

Andoingo ordezkariak aipatu du udalerrien arteko negoziazio edo bilerak egin daitezkeela, baina gero ez dutela zertan islada izan beharrik Batzarrean.

Alkizako ordezkariari errespeto falta izugarria eta atzera pauso bat iruditzen zaio berriro eztabaidatzea gauza bera.

Lehendakariak zehaztu nahi du Tolosako Udalarekin izandako bileran ez zela ezer adostu, eta beraz, prozedurarekin jarraitu behar dela, ondorengo pausoa izango delarik aurreratu behar duen alegazioak banaka bozkatzea. Jarraian, Tolosako aurreratu behar duen 1. alegazioa irakurtzen du, horrela diona hitzez-hitz: “artículo 8: el personal propio, funcionario o de

régimen laboral, se ajustará a la Relación de puestos de trabajo que se aprobará conforme a la normativa general de aplicación”. Batzarrak onartzeko nahia azaldu du, Alkizako ordezkariak ezik. Tolosako ordezkariak eten egin du bozketa, insistituz berak hasieratik argi utzi duela ez dela ezer bozkatu behar, ezta alegazioak ere, bere Idazkariaren irizpideei jarraituz. Beraz, galdetu die batzarkideei berak zer bozkatu behar duen.

Andoingo ordezkariak erantzun dio bi aukera bakarrik dituela, edo alegazioak bozkatzea edo bestela atzera botatzea.

Gazteluko ordezkariari ez zaio ondo iruditzen alegazioak bozkatu gabe uztea, prozeduraren aurka doalako.

Alegiko ordezkariak dio forma aldetik bozkatu egin behar direla, ezin delako beste erabakirik hartu.

Tolosako ordezkariak esan du prozesu honekin ez daudela ados eta beraien borondatearen kontra dihoala, beraz, abstenitu egingo dela, bere Idazkariaren iritzia araberako prozedura gaizki eraman delako. Mankomunitateko Idazkariak galdetu dio ea orain martxan dagoen prozedura atzera bota nahi duen, eta Tolosakoak baiezkota erantzun dio, gaineratuz aktan nahi duela jasotzea bere iritzia, hau da, prozesu berri bat martxan jartzea udal guztien adostasunarekin.

Lehendakariak leporatu dio Tolosako ordezkariari indarrean dagoen prozedurari ezezko botoa ematea, denbora falta argudiatuz, estatutu berriak idazteko garaian egindako lan izugarria kontuan hartu gabe.

Andoingo ordezkariari zentzugabea iruditzen zaio egoera hau.

Lehendakariak berretsi du alegazioak berriro bozkatzeari ekin behar zaiola. Puntu honetan, Alegiako ordezkariak adierazi du berak alegazio guztien aurka bozkatuko duela, Tolosako Udalaren jarrera onartezina salatzeke, oztopoak besterik ez dituelako jartzen eta ondorioz, ez duelako uzten prozedurarekin jarraitzea. Beste batzarkide batzuk ere asmo bera azaldu dute.

Ondoren, bozketari ekin zaio, emaitza honakoa izan delarik:

Batzarrera bertaratutako udalerrri eta botoak		ALDE		KONTRA		ABSTENTZIO	
Udalerrriak	% botoak	Udalerrriak	% botoak	Udalerrriak	%botoak	Udalerrriak	%botoak
Aduna	% 0,77			Aduna	% 0,77		
Alegia	% 2,85			Alegia	% 2,85		
Alkiza	% 0,61			Alkiza	% 0,61		
Altzo	% 0,65			Altzo	% 0,65		
Andoain	% 23,92					Andoain	% 23,92
Amezqueta	% 1,58			Amezqueta	% 1,58		
Anoeta	% 3,09			Anoeta	% 3,09		
Asteasu	%2,49			Asteasu	%2,49		
Berastegi	% 1,72			Berastegi	% 1,72		
Berrobi	% 0,93			Berrobi	% 0,93		
Gaztelu	% 0,28			Gaztelu	% 0,28		
Ibarra	% 6,95			Ibarra	% 6,95		
Ikaztegieta	% 0,76			Ikaztegieta	% 0,76		
Irura	% 2,73					Irura	% 2,73
Larraul	% 0,42					Larraul	% 0,42
Lizartza	% 1,05			Lizartza	% 1,05		
Orexa	% 0,20			Orexa	% 0,20		
Tolosa	% 30,91					Tolosa	% 30,91
Villabona	% 9,61					Villabona	% 9,61
Zizurkil	% 4,89			Zizurkil	% 4,89		
20 udalerrri	% 96,41	0 udalerrri	% 0,00	15 udalerrri	%28,82	5 udalerrri	% 67,59

Beraz, guztia azterturik, Batzarrak, gehiengo soilez eta gainera gehiengo soil horrek, gutxienez, Mankomunitateko udalen gehiengo ordezkatuz

ERABAKI DU

LEHENA.- Tolosako Udalak Tolosaldeko Mankomunitatearen estatutuen aldaketa berriari aurkeztutako alegazioak ez onartzea.

BIGARRENA.- Erabaki hau, estatutuak aldatzeko 2019ko martxoaren 25ean hartutako hasierako erabakiarekin batera, Tolosaldeko mankomunitateko web orrialdean argitaratzea.

HIRUGARRENA.- Gipuzkoako Foru Aldundiari bidaltzea, hilabeteko epean estatutuen proiektua azter dezan eta irizpena egin dezan, epe hori iragaten bada iritzirik eman gabe aldekotzat hartuko da.

Hori egin ondoren, Mankomunitatea osatzen duten udal guztiek aldaketa onartu beharko dute, Mankomunitatea eratzeko eskatutako quorumarekin onartutako udal batzarraren erabakiaren bidez.

LAUGARRENA.- Tolosaldeko Mankomunitatea osatzen duten udalei erabaki hau jakinaraztea

3. 2018ko Kontu Orokorraren onarpena.

2019ko martxoaren 25ean ospatu zen Batzorde Iraunkorrek oniritzia eman zion 2018ko Kontu Orokorraren espedienteari. Ondoren, iragarkia azaldu da Gipuzkoako Aldizkari Ofizialeko 62 zbk.an, 2019ko apirilaren 1ean, 15 eguneko epea ezarriz alegazioak aurkezteko. Epea amaitu ondoren ez denez erreklamaziorik jaso, Batzarrari eskatzen zaio bere onespina eman dezan.

Beraz, eskatutako azalpen guztiak eman ondoren, Batzarrak, ahobatez,

ERABAKI DU

LEHENA.- 2018 ekitaldiari dagokion Kontu Orokorra onartzea, bertan agertzen diren dokumentu nagusi eta bere osagarrien arabera:

1. Balantzea
2. Ekonomia eta ondare arloko emaitzaren kontua
3. Ondare garbiaren aldaketen egoera orria
4. Diru-fluxuen egoera orria
5. Aurrekontuaren likidazioaren egoera orria
6. Memoria

BIGARRENA.- Espedientearen kopia bat Gipuzkoako Foru Aldundira bidaltzea.

HIRUGARRENA.- Espedientearen kopia bat Herri-Kontuen Euskal Epaitegira bidaltzea, erakunde honi dagokion kanpo fiskalizazioa egin dezan.

4. Inbentarioaren eguneraketa.

Tokiko Araubidearen arloan indarrean dauden legezko xedapenen testu bategina onartzen duen apirilaren 18ko 781/1986 Legegintzako Errege Dekretuaren arabera, tokiko erakunde guztiek osatu behar dute bere ondasun eta eskubideen inbentario orokorra. Hori dela eta,

indarrean dagoen legediari jarraiki, Tolosaldeko Mankomunitateko Inbentario Orokorra osatzeko dagokion prozedura jarraitu eta espedientea izapidetu da.

Kontuhartzailearen txostenaren arabera, 2018ko abenduaren 31n osatutako Tolosaldeko Mankomunitateko inbentarioaren egiazko balioa 1.931.703,61 eurokoa da guztira, eta balio historikoa 2.465.261,25 eurokoa.

Txosten hau eta gainerako guztiak, espedientean barneratzen dira.

Ondoren, Batzarrak, aho batez,

ERABAKI DU

LEHENA.- 2018ko abenduaren 31ko datan osaturiko Tolosaldeko Mankomunitatearen Ondasun eta Eskubideen Inbentario Orokorra onartzea, zeinaren atalkako xehetasuna honakoa den:

KATEGORIA	BALIO HISTORIKOA (€)	EGIAZKO BALIOA (€)
Ibilgetu ez materiala	17.688,40	0,00
Orubeak eta partzelak	1.262,13	1.262,13
Ondasun higiezinak	1.423.747,76	1.237.074,95
Ibilgailuak	421.927,00	360.642,92
Instalazio teknikoak eta makineria	80.600,26	48.956,54
Informazio prozesuetarako ekipoak	75.491,04	4.941,74
Altzariak	444.544,66	278.825,33
GUZTIRA	2.465.261,25	1.931.703,61

BIGARRENA.- Inbentarioaren kopia oso bat Estatuko eta Erkidegoko Administrazioei bidaltzea.

5. 2019ko Fidantza kontrolerako planaren berri ematea.

1. 2018ko abenduaren 27ko **32/2018 Foru Dekretuak (barne kontrola arautzen duenak) 30.** artikulua ezartzen duenaren arabera Organo **kontu-hartzaileak kontrol finantzarioko urteko plan bat prestatu beharko du**, ekitaldian egin beharreko kontrol iraunkorreko eta auditoretza publiko jarduketak jasoko dituen.

2. Helburuak:

Administrazio publikoaren ondasunen eta ondarearen osotasuna zaintze aldera eta 2019ko kudeaketa ekonomiko egokia bermatze aldera, **jarduera horren gaineko kontrolak ezartzen dituzten arauak existitzen dira**. Kontu-hartzailetzaren barne-kontrolaren bidez, Tolosaldeko Mankomunitatearen helburua **legeen eta arau aplikagarrien betekizunean konfiantza –maila ematea da**. Era berean, mankomunitateko kudeaketan finantza informazioaren fidagarritasuna eta eragiketen eraginkortasuna bermatzea lortu nahi da.

1. Tokiko sektore publikoaren kudeaketari buruzko **epe laburrerako eta ertainerako kontrol planifikatua** egitea, toki-erakundeetan barne-kontrolerako araudian adierazitako tresna eta prozedurekin baliabide publikoak modu eraginkorrean hobetzea (batzuetan, aldeztuetatik, eta, beste batzuetan, finantza-kontrolaren eta ikuskaritza publikoaren bidez).
2. Ekonomia- eta finantza-kudeaketaren diagnostikoa egitea, **ahuleziak, desbideratzeak edo hutsuneak adieraziz**.
3. Ahulezia, desbideratze edo hutsune horiek zuzentzeko, **hobekuntza ekintzak proposatzea**, eta, zer zuzendurik ez badago ere, kudeaketa ekonomiko-finantzarioa optimizatzen laguntzea.
4. Planaren aplikazioaren ondorioak ebaluatzea, era horretan etorkizuneko antzeko planetan hobekuntzak sartzeko.
5. Aipatutako erakunde horien kudeaketa ekonomiko-finantzarioaren gardentasuna hobetzea.

3. PLANAREN EKINTZAK

4. Ekintzak ondorengo **planifikazioaren** arabera gauzatuko dira:

Ekintza	Ekain a (2019)	Uztail a	Iraila	Urri a	Azaro a	Urtar. (2020)	Otsail a	Martxo a	Apiril a
A.1.1 (*)									
A.1.2.					x			x	
A.1.3.		x		x		x			x
A.3.1.				x					
B.1.1.			x				x		
B.1.2.						x			

5. PLANAREN EMAITZA

Urtero eta kontu orokorraren onarpena dela-eta prestatu beharko du barne kontroleko emaitzen txosten laburtzailea. Txostena batzarrea bidaliko da, korporazioko lehendakariaren bidez.

Honen ondoren, lehendakariak ekintza plan bat formalizatuko du, eta bertan barnean hartuko dira aurreko atalean aipatutako txostenean **agerian jartzen diren ahuleziak, akatsak, erroreak eta ez-betetzeak zuzentzeko hartu beharreko neurriak.**

Batzarra jakinaren gainean geratu da.

6. Tolosaldeko Mankomunitatea eta Spora Ingurumen Zerbitzuak enpresaren artean izenpetutako kontratuaren aldaketa proposamena, ingurumen hezitzailearen zerbitzuaren ingurukoa.

2018ko azaroaren 30an, Tolosaldeko Mankomunitatea eta Spora Ingurumen Zerbitzuak enpresaren artean eskualdeko udalerrietan hiri hondakinen gaikako bilketa bultzatzeko bi hezitzaileen zerbitzuaren kontratu administratiboa izenpetu zen. Ikusirik kontratu honen aldaketaren beharra, ondorengo interes publikoko arrazoiengatik:

Hasieratik kontratatuko baino zerbitzu gehiago eranstea, ondorengo baldintzak betetzen direlarik:

1. Kontratatutako aldaketa ezin ematea, arrazoi ekonomiko edo teknikoengatik eta, era berean, kontratatutako aldaketak eragozpen esanguratsuak sortzea edo funtzesko kostuen igoera organu kontratugilearentzat.
2. Kontratuaren aldaketak bere zenbatekoan izan dezakeen eragina ez dezala gainditu, bera bakarrik edo adostutako gainontzeko aldaketen hasierako prezioaren %50a, BEZa kanpo, ZPKLren 205 art. arabera. Honakoa betetzen da ondorengoagatik:

- Mankomunitateko Batzarrak, 2018ko uztailaren 12an, adostu zuen UTE TOLOSALDEA enpresari esleitzea hiri hondakinen bilketa, mankomunitatea osatzen duten udalerrietan, non gainontzeko zereginen artean dagokion ere, horrela eskatzen duten eskualdeko enpresei kartoia, egurra, plastiko industrialak eta errefusaren gaikako bilketaren zerbitzua, atez ateko bilketaren bidez eta erabilera bakarreko edukiontzietan. Azpimarratu behar da aipatutako kontratuan jasota dagoela gaur egun errefusaren bilketarako ezarrita dauden berde koloredun edukiontzi guztien ordezkapena, gris koloredun edukiontziengatik.

Aipatutako zerbitzuak kontraturiko baldintzetan, hezitzaile baten kontratazioa dakarki, zerbitzuari atxikitutako enpresa guztiekin harremanetan jartzeko (bi hezitzaileak hartatutakoekin ere) eta:

- Zehaztea kolore berdeko edukiontzien zenbatekoa eta edukiera, gris koloredunengatik ordezkaturiko direnak (gaur egungo datu basean 700 inguruko berde koloredun edukiontzi daude, errefusaren gaikako bilketarako).

- Enpresei dagozkien gainontzeko zerbitzuetaz informatzea, Mankomunitateak eskeintzen dituenak.
- Alta berriak kudeatzea.
- Enpresek eskatutako edukiontzien identifikazio eta banaketan laguntzea.
- Aurreko puntuan zehaztutako bi hezitzaileek jasotzen dituzten eskaerak koordinatzea.
- Azkenik, enpresetan eskeintzen den zerbitzuaren datu basea eguneratzea (Arcosat/Moba).
- Eskatu daitezkeen gainontzeko lanez arduratzea.

Aurreko puntuan zehaztutako zerbitzuak aurrera eramateko, hiru hilabeteko epea kontsideratzen da egokiena, jornada osoaz, hilabetez hilabetera luzatuz, sei hilabetez gehienez (luzapenak barne).

Zenbatekoa kalkulatu da kontratuaren esleipenarako prezio unitarioak erabiliaz, 20.000 € (gehi 4.200 € %21eko BEZa) direlarik.

Ikusirik zerbitzuaren teknikariak emandako txostena, bertan aipatutako kontratuaren aldaketa proposatzen delarik, 205 artikuluko azaroaren 8ko Sektore Publikoko Kontratuen 9/2017 Legean -SPKL 2017- eta 102 artikuluko urriaren 12ko 1098/2001 Errege-Dekretuan, Administrazio Publikoko Kontratu Legearen Araudia onartzen duena, oinarritzen delarik.

Ikusirik Mankomunitateko Idazkariak emandako aldeko txosten juridikoa.

Ikusirik Mankomunitateko Kontuhartzaileak emandako aldeko ikuskatze txostena.

SPKko 203 artikulua eta ondorengoak kontuan harturik, eta zehatzago, plegu administratiboko baldintza partikularretan aurreikusi gabeko aldaketen erregimenean (205 artikulua), prestazio gehigarriengatik sortutako aldaketa delarik.

Kontuan harturik kontratazio organua, proposatutako aldaketa oraingo kontratuan, Mankomunitateko Batzarra dela, aurrez deliberatu ondoren, aho batez,

ERABAKI DU

LEHENA.- Hondakinen gaikako bilketa bultzatzeko hezitzaileen zerbitzuaren kontratazioa Spora Ingurumen Zerbitzuak S.L. enpresaren aldeko esleipena berrestea, Lehendakariaren LE20181123.030 zbk. ebazpenaren bidez onartutakoa.

BIGARRENA.- Tolosaldeko Mankomunitatearen eskualdeko udalerrietan hiri hondakinen gaikako bilketa sustatzeko bi hezitzaileen zerbitzuaren kontratuaren aldaketa onartzea, hezitzaile bat kontratatuz, Tolosaldeko Mankomunitateko eremuko udalerrietan hiri hondakinen bilketa zerbitzura atxikitutako enpresekin harremanetan jarriaz (bi hezitzaileak hartatutakoekin ere) eta:

- Zehaztea kolore berdeko edukiontzien zenbatekoa eta edukiera, gris koloredunengatik ordezkaturako direnak (gaur egungo datu basean 700 inguruko berde koloredun edukiontzi daude, errefusaren gaikako bilketarako).
- Enpresei dagozkien gainontzeko zerbitzuetaz informatzea, Mankomunitateak eskeintzen dituenak.
- Alta berriak kudeatzea.
- Enpresek eskatutako edukiontzien identifikazio eta banaketan laguntzea.
- Aurreko puntuan zehaztutako bi hezitzaileek jasotzen dituzten eskaerak koordinatzea.
- Azkenik, enpresetan eskeintzen den zerbitzuaren datu basea eguneratzea (Arcosat/Moba).
- Eskatu daitezkeen gainontzeko lanez arduratzea.

Aurreko puntuan zehaztutako zerbitzuak aurrera eramateko, hiru hilabeteko epea kontsideratzen da egokiena, jornada osoaz, hilabetez hilabetera luzatuz, sei hilabetez gehienez (luzapenak barne).

Zenbatekoa kalkulatu da kontratuaren esleipenerako prezio unitarioak erabiliaz, 20.000 € (gehi 4.200 € %21eko BEZa) direlarik.

HIRUGARRENA.- Kontratatari honako akordioa jakinaraztea, ohartaraziz adostutako aldaketa izenpetu beharko dela akordio hau jakinarazi eta ondorengo hamabost egunetan gehienez jota, ZPKLko 153 artikulua araberak, dagokion errekurtsu erregimena ere kontuan harturik.

7. Galde-erreguak.

Teknikarika hitza hartu du adierazteko ekainaren hasieran Batzarraren deialdia egin beharko dela, gaurko Akta onesteko.

Eta bileraren helburua beteta, arratsaldeko zazpiak eta hogeitabost direnean, Lehendakariak bilera bukatutzat eman du eta nik, Idazkari naizenak, guztia ziurtatzen dut.

LEHENDAKARIA

IDAZKARIA